


Labe elektrikoa

Electric Arc Furnace (EAF)

Altzairugintzaren prozesu primarioa: labe elektrikoa

Munduan ematen den altzairuaren laurdena, arku-elektrikoaren labearen bitartez lortzen da. Prozesu honetan, intentsitate handiko korrante elektrikoak erabiltzen dira burdina eta txatarra urtzeko. Prozesua ez da oso oxidatzailea eta, ondorioz, lortzen den altzairuak, %0,05 baino altuagoa du karbonoaren proportzioa.



Labearen funtzionamendua

Arku-elektriko labea zilindrikoa da, hiru elektrodo nagusi ditu eta ontziaren diametroa, 9 m-taraino iritsi daiteke, azken honek 300 tona material lan dezake.

Ontzia mugitzeko (altxatzeko...) sistema hidraulikoa du.

Labe honen paretak alda daitezke eta urez hoztutako panelak ditu.

Ontziaren goia eta elektrodoak igo daitezke, karga errazteko.

Elektrodoak grafitozkoak dira eta bildurik daude, 0,6 m-ko diametroa ere egin arte.

Behar den energia elektrikoa altua da; altzairu tona bat lantzeko, 300-600 kWh energia behar izaten da.

